

# Busturiako zazpi fusilatuen oroimen hariak

Bizkaian, 1937ko abuztuaren 5ean Busturiako 6 gizon fusilatu zituzten frankistek Derion. Lehenago, Galiziako Ferrolen, itsasontzi bateko bidaiari guztiak ere fusilatuak izan ziren, Santiago Gondra Zigorraga busturiarra tartean. Hona haien oroimen hariak.



AHAZTUAK 1936-1977

Elisa Kaltzada aitaren omenez krabelina jartzen, joan den abuztuaren 5ean.

## JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

**BUSTURIAKO ELIZAN** hileta elizkizuna deitu zuten. Baina frankisten alkate berriaren eraginez eta Bizkaiko gobernadorearen aginduz, beraien arimaren aldeko hileta debekatzea agindu zioten Busturiko parrokoari. Ofizialki desagertuak ziren. Ez zuten oroimenik merezi. Eta apaizak esana bete zuen. Etxerik etxe joan ei zen hiletarik ez zegoela ospatzerik ohartaraziz. Espainiako

Estatu berriko gobernadoreak agindu osoa –terrenala eta espirituala– izango zuen aurrerantzean. Baina ez ahaide ezta herritarrek ere ez zituzten ahaztu. Domeketako meza nagusian, “sepulturetan” kandela argia bizturik izan zuten eta isileko mezak agindu zituzten.

Ondokoak, eskola urteetan jadanik, oroimena jasotzen hasi ginen. San Blas egun



# urdaibai



Laidako hondartza  
Arketa auzoa, z/g  
48311 IBARRANGELU  
[www.urdaibai.com](http://www.urdaibai.com)  
[info@urdaibai.com](mailto:info@urdaibai.com)

## ● Busturia. 1937-2007

batean, zinta zuri, gorri eta berdeak paparrean ipintzearen harira, gertakizun tragikoaren lehen ahotsak entzun nituen. Beranduago etxe-koen kontakizuna jaso nuen. Ondoren, ikerketa etnografikoen bidez, gertatutakoa aztertu eta duela hogeita urte argitaratu nuen. Oroimena bizi-bizirik zegoen.


1938an, Karmele Lekunberrik Derioko aitaren hilobian gurutzeta jartzeko baimena lortu zuen. Urte batzuk geroago, 1947ko abuztuaren fusilatuen ahaideek Derioko lagun-ena deia jaso zuten: bertako hilerrian fusilatuen hezurak atera eta lekuz aldatzeko asmoa zegoen. Berehala joan ziren. Doroteo eta Romanen hezurak igarri zituzten, arropa eta hortzetako aztarnen bidez; Demetriorenak ere bertan zeuden; Hipolitorenak, aldiz, ezin izan zituzten aurkitu. Gaur egun gorderik dituzte beraienak beraien izan zituzten gerriko, hortz eta enparauak.

Hogeita hamargarren urteurrenean, lehen-dabiziko oroimen garaipena lortu zuten alargun eta senitartekok: ageriko meza agindu eta ospatzea. 1967ko abuztuaren 5ekoa, fusilatuen ahaideentzat egun berri eta handia izan zen. Izan ere, ageriko meza ospatu ahal izateak hildako bakoitzaren oho-rea, izen ona eta zuzentasuna jendartearen garbitasunez zabaltzea suposatzen zuen. Gainera, beste batzuen lotsarako, hildakoak herriko buruzagiak zirela eta horrelaxe agertzeko esku-bidea zutela esan nahi zuen adierazpen publiko horrek.

1967ko deialdia gomuta orritxo bidez eta ahoz aho egin zen: *30garren urtean lenengo ageriko eleizkizuna*. Busturiko Andra Mariaren eliza gotiko zabalak gainezka egin zuen. Elizkizunaren meza Julen Kaltzada, Doroteo Kaltzada fusilatuaren semeak eta beste apaiz batzuek –Emiliano Iturraranek, besteak beste– gidatu zuten, euskaraz. 1967ko deialdian, Busturiko sei fusilatuen eta Ezkaban (Nafarroa) hil zen –edo hil zuten– presoaren izenak agertzen ziren, baina era berean, zera zioen adierazpenak: *Gogoan edukiko doguz era bardiñean, galdu ziran beste busturitar gustiak*.

Fusilatuen oroimena elizan ez ezik, udalean ere berpiztu zen, fusilatuen seme-alabak herriaren ordezkari bilakatu zirenean. 1979ko udal hauteskundeetan Doroteo Kaltzadaren alaba, Elisa, zinegotzi aukeratu izan zen eta 1983koan, Roman Zearreta fusilatuaren semea, Gorka, aukeratu

Beheko argazkian: Eztabaida askoren ondoren, fusilatuen omenez 1988an inauguratu zen 10 metroko obeliskoa, Lauren pintore eta eskultoreak egina. Harria sei laukiz osaturiko oinarri batek eusten du. Goiko irudian: 1967an egin zen ageriko mezarako esku orria, fusilatuen izenekin.



zuten kargu horretarako. Gerora, familia bereko bilobek ere parte hartu dute udaletxean: Doroteo Kaltzadak eta Andres Zearretak. 1983ko udaleko alkate zenak, J. M. Agirreazkuenagak, Frantzia hiru urtez errefuxiatu izan zenez (1937-1940), 1914ko Gerraren garaiko frantziarren oroimen publikoak gogoz zituen. Horrela, fusilatuen izen ona eta giza legezko zuzentasuna gogoratzeko, oroigarria eraikitzea erabaki zen, eta 1988an inauguratu zen, Julian Bilbao alkate zela. Horretaz gain, fusilatuen historiari buruzko liburuxka ere argitaratu zuen udalak.

### Zergatik fusilatu zituzten?

Busturiarren aurkako epaiketaren berri *La Gaceta del Norte* egunkari katolikoak eman zuen –1937.07.20: *Causa contra unos concejales y vecinos de Busturia*–. Beraz, ez zen ohikoa. Busturian ezarri zen errepresioa berebizikoa izan zen, eskualde hartako herrietan gertatu zenarekin parekatuz gero behintzat. G. Steer kazetariak ere aipatu zuen eta New Yorkeko egunkarietan oihartzuna izan zuen.

Demetrioren aurkako salaketa nagusia zera zen: bere ostatuan Eusko Jaurlaritzako kideak bildu zirela. Gernika birrindu ostean, ke artean sartu ziren frankistak –karlista jatorrak eta ipar Afrikako Espainiarraren aurkako gerra kolonialetan zaildu ziren “moruak”–, buruzagi militar profesionalen esanetara. 1937ko apirilaren 30ean Busturian motoristak agertu ziren, bandera monarkiko espainiarra aldean zutela. Monarkiko liberalak eta karlistak, arierio izan zirenak, behingoz batera.

Busturian gertatu zen errepresio gogorra ulertzeko, bi abiapuntu ditugu: gerra aurretik herrian bizi izan zen botere borroka batetik, eta 1937ko agintari berriek erretagoardian erabateko garbiketa eta beldurra ondo ereinik utzi nahi izana bestetik. Busturiko herrian, monarkiko liberalak aspalditik ziren aginte politikoaren jabe, karlisten aurkari zuzenak. Zehazki, Arrotegi anaiak ziren nagusi –eskolak eta zaharren egoitzak eraiki zituzten, besteak beste–. Baina Sabino Aranak eragin handia zuen herrian; euskara zela-eta, adibidez, bertako eskolako maisuarekin polemika bizia piztu zen behin. Eta hara non-



Ezker-eskuin eta goitik behera: Hipolito Alvarez, 45 urte; Florencio Bilbao, 45 urte; Andres Zearreta, 36 urte; Demetrio Lekunberri, 50 urte; Doroteo Kaltzada, 39 urte; Feliciano Zenarruzabeitia, 47 urte; Roman Zearreta, 45 urte.



dik, 30 urteren buruan, Aranaren jarraitzaileak monarkikoen ginetik jarri ziren udalean. Baina monarkikoen eta Arrotegiren aginte sarea, Palmira Arrotegiren bidez, oraindik oso zabala eta sendoa zen. Aginte politikoa galdu zuten, baina ez botere ekonomikoak sorturiko babes soziala. Bestetik, errepublikano-sozialistek ere bazuten pisurik, Prieto eta Azaña politikariak bertan ibili izan ziren gerra aurretik –1936ko kolpe militarra gertatu zenean Indalecio Prieto Sukarrietan zegoen, Busturia ondoan–.

Kolpe militarren ostean, Errepublikaren defentsarako komitea sortu zen eta azaroan udalak aginte osoa hartu zuen. Francoren aldeko ugari zegoen, bereziki, udatarren artean. Baina Arginzoniz alkateak esan ei zuen: “Ni alkate nasen artean esta gure errijen inor deteniduko”. Areago, Busturian karlista eta monarkikoak ezkutu egin behar izan ziren, besteak beste Jesusa Urrutxuaren etxean. Hipolito Alvarezek ere Durangoko karlista bi, Orue anaiak, gorde zituen.

Frankistak agintean jarri zirenean, Bermeoko komandante militarrek, Eusebio Garcia de Villarre, Ricardo Damboronea Castroviejo *delegado de mi autoridad en Pedernales y Busturia* izendatu zuen. Horrela, damborenetarren familiaren etxe azpiko solairua, Sukarrieta eta Busturiaren mugan kokatua, bilera gune berezi bihurtu zen. Bertara joaten zen sarritan G. Learreta, Palmira Arrotegiren bigarren senarra. Damboroneak eta bere lagunek udal berria izendatu zuten: Dario Gomez itsas kapitaina izango zen alkate. Lege onean aukeraturiko Busturiko alkateak eta ingurukoek Frantziara alde egin behar izan zuten. Hasiera-ko unean, beste batzuen artean, Sabino Arana-

# UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20  
20003 DONOSTIA  
© 943 423 424 · Fax: 943 424 424  
urola@restauranteurola.com  
www.restauranteurola.com

ren alarguna ere atxilotua izan zen, hirurogei eta lau urteko alarguna, nahiz eta azkenik etxera bidali zuten gaixorik.

Ezkatatu zirenik ere bazeuden egon: Roman Zearreta, Andres eta Doro-teo Kaltzada... Hala ere, ezer txarrik inori egin gabe-koak zirela-eta, Derion ezkutaturik egon ondoren, etxera itzultzea erabaki zuten. 1937ko ekainaren 21ean itzuli ziren senideen ondora, ezinbestekoa zela-ko beraien lana. Baina zinegotzi ohiak ziren eta udale-txean aurkeztu ziren

lehenik. Zortzigarren egunean, San Pedro egu-nean, meza ostean atxilotu zituzten. Uztailaren 2an beraien eta beste lagun batzuen aurkako salaketak sinaturik zeuden jadanik. Sinatzaileak udal berriko alkatea eta beste herritar batzuk ziren. Atxilotu eta salatu ugari izan arren, azke-nik hamabi lagun izan ziren epaituak, horietar-rik 10 ezkondurik.

1937ko uztailaren 18an epaiketa egin zen. Zinegotzi izan zirela, EAJ edo Izquierda Repu-blicanako kide zirela eta gazteak erreklutatu zituztela leporatu zieten, eta horrez gainera, espainolen aurka esamesak esan omen zituzte-la. Hori guztia honetan laburbiltzen zen: *Sub-versión roja-separatista* delakoaren alde zeudenez gero, erreboltariak zirela. Horra bada paradoxa bitxia: Errepublikaren legea bete baino ez zutenak orain salatuak ziren. Eta nortzuk sala-tzaile? Legearen urratzaileak. Mundua alderantziz. Jakina, indar militar garaileak bere agindua ezarri zuten. Sententzia gogorra izan zen: sei gizon herio zigorrera kondenatuak.

Epaia berriz ikusteko, pertsona ezagunen testigantza zuzenak behar ziren. Alkate eta parrokoarenak lortuz gero aski zen. Andres Zearretak emazteari uztailaren 28an bidalita-ko gutunean egoeraren azterketa argia eta

## Izen guztiak

Busturiko Hirugarren Adineko Elkarteko kideek, Elisa Kaltzada, Maria Luisa Alva-rez eta beste batzuen ekimenez, 1936ko Gerratean galdu zirenen zerrenda osoa burutzen hasi ziren. Ildo beretik, Alema-nian preso zegoela hil zuten Angel Lekuo-na Beitiaren kasua berreskuratu zuen bere iloba batek. Gaur egunean gerraren inguruan hil eta desagertu zirenen zerren-da osotua dagoela dirudi. Baina herritik alde egitera beharturik joan zirenen zerrenda egiteke dago oraindik. Jarritako

multak eta errepresioa ere ez dira aztertu. Hirugarren Adinekoek, 2005ean, hildako guztiak gogoan izateko, meza eta ekitaldi publikoa antolatu zuten. Geroztik hildako berri bat ere ageri da, laster batean beato izango dena: Cesareo Elexgaray Otazua. Paul kongregaziokoia zela, Madrilen hil zuten 1936an, 32 urterekin.

Aurten, Busturiko fusilatzen 70. urteurrena dela-eta, abuztuaren 4an uda-lak ekitaldi publikoa deitu zuten eta 5ean Paresiko jaietan gogoratuak izan ziren.

zehatza egin zuten, lortu beharreko babesa aipatuz. Baina katoliko irabazleen bihotzak gogorturik zeuden. Esaterako, Florencio Bil-baok bere alde testigantza eman zezan Sollu-ben auzo bereko baserritar adiskidea izenda-tu zuten, jakin barik, berberak izenpetu zuela bere aurkako salaketa.

### Beldurraren sozializazioa

1937ko abuztuaren 5ean, Busturian 6 andre alargun eta 17 umezurtz geratu ziren, zerua goian eta lurra behean. Etxeko ezinegona eta negarra, horixe da fusilaturiko seme-alabak gehien gogoratzen dutena.

Busturiko gizasemeak militar eta politiko batzuen erabakiz fusilatuak izan ziren eta ez edozelan erailak. Ezin duguna ahaztu, ezta nahastu ere, agintari berrien asmoa, prozesu osoaren zentzu politikoa eta helburua zein zen: ikara eta beldurra eragitea. Militarrek beldurraren sozializazioa sorrarazten profes-ional txukunak dira. Agintari berriek uste zuten, politikoki nagusitzeko heriotza zigo-rren bidea aplikatzea nahitaezkoa zela. Milita-rren uste ustela baino ez da, pentsatzea, hil-keten bidez herrien gogoa eta norabidea alda daitekeenik. 1937ko uztailaren eta abuztuaren, zigorren beldur joandako batzuk etxeratzen hasi ziren, baina beste batzuk Frantzian gera-tu ziren badaezpada. Errepresioak gizarteko esparru guztietan jarraitu zuten. Adibidez, 1941ean, urte batzuk lehenago fusilatuak izan zirenak, 250 pezeta ordaintzera kondenatuak izan ziren! Eta bizirik atera zirenak 1.000 eta 2.000 pezeta.

Bukatzeko, Gerra Zibila eta ondorengo egoeraren azterketarako, euskal ahozko his-toriak oraindik ez du lortu merezi duen ager-pena eta onarpena. Hala ere, gizalegezkoa dirudi noizbait burutzea. ■

## Jesusa Urrutxua

Duela 20 urte, herio zigorrera kondenatua izan zen Jesusa Urrutxua elkarrizketu nuen. Epaietaren testigantza eman zidan. Azken unean, bera eta Karlota heriotzatik libratu egin ziren eta ondoren sei urte egin zituzten preso. Atxilotu zituztenean Busturian bertan militarren aurrera aurkeztera behartu zituzten eta horietako batek esan zion: *“Qué pena, el mal querer lo tienen ustedes aquí mismo”*. (Ze pena, hemengoek ez dizuete onik opa).